Defendatzaileen Buletina

Boletín Defensoras

Abendu - Diciembre 2022

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN Lankidetza Cooperación

Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa

GRAIN GIPUZKOA

#OIHARTZUN TALKA

Sororidad Feminista

lumaltik HERRIAK

Aurkibidea

01
Aurkezpena

02
Zer da Enredada Feminista?

03
Erdialdeko Amerika eta Euskal Herria lotuz

04
Argazki-erreportajea: 2022a elkarrekin gogoratuz

05
Sara Curruchichen abestia

Aurkezpena

Irakurle maitea,
Lumaltik Herriak-etik bultzatzen ari garen #OihartzunTalka kanpainaren azken buletina aurkezten dizugu. Beti bezala, ilusio handiz eta sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkalaren aurkako borrokak kolektibizatzeko asmoarekin, Erdialdeko Amerikako eta Euskal Herriko lurraldeak hurbilduz. Horretarako, elkarrizketarako, elkartrukerako eta sentsibilizaziorako guneak sortzea funtsezkoa dela uste dugu. Espazio horietan, gure gorputz-lurra defendatzen duten eta Erdialdeko Amerikako hainbat lurraldetatik datozen emakumeek beren borrokak eta esperientziak partekatzen dituzte, Euskal Herriaren eta bere prozesuen arteko elkartasuna sustatuz, herrien eta emakumeen autonomia defendatzearen alde.

Lehen buletinak ikusi ez badituzu, gogoraraten dizugu #OihartzunTalka 2021eko udaberrian kaleratu zela, Erdialdeko Amerikako emakumeek bultzatutako bizitzaren eta lurraldearen defentsa-prozesuetan jasandako egoeren aurrean ahotsa altxatzeko helburu tinkoarekin. Komunitatearen defendatzaile izateak dakarren egoerak salatu nahi ditugu, haiek burututako ekintzak sistema kapitalista estraktibista eta patriarkalaren aurka duten eragina gurera ekarriz. Sistema honek maila globalean inposatzen da eta sistematikoki bortxatzen gaitu uneoro. Hauda, salaketa-kanpaina bat sustatu dugu, gogoeta egiteko eta zaintza eta autodefentsa-ekintzak bideratzeko.

Honako hau urteko azken buletina da eta, honetan, Enredada Feministari buruz hitz egin nahi dugu. Hura abian jartzen ari den sarea da, bere lehenengo pausoak ematen ari dena. Enredada Feministak Erdialdeko Amerika eta Euskal Herria lotzen ditu. Hura lurraren eta lurraldearen emakume defendatzaileok, Giza Eskubideen aldeko kolektiboetako kide garen emakumeok eta feminismoaren aldeko eta arrazakeriaren aurkako euskal emakume aktibistok osatzen dugu. Buletin honen bitartez, bada, emakume horiek omendu nahi ditugu, urte askoz, partekatu, hausnartu eta elkarrekin lan egin baitugu gure lurraldeetan “Bizitze Ona” lortzeko.

Buletin honetan Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza taldeko lagunek Erdialdeko Amerikara egin berri duten bidaiaren hiru kronika sartu ditugu. Bidai horren helburua emakume defendatzaileek bere lurraldeetan gauzatzen dituzten erresistentzia proiektuak zuzenean ezagutzea izan da. Halaber, aurten Euskal Herrian egin ditugun jardueren argazki-erreportaje bat aurkituko duzu eta Enredada Feministari buruzko atal bat. Izan ere, espazio seguruak partekatzea, emakumeek euren burua hobeto ezagutzeko eta beste batzuekin harremanak sortu ahal izateko, subjektu politikoak eraikitzeko prozesuaren eta jakintza eta proposamen askatzaileak sortzeko estrategiaren ezinbesteko atala da.

Hezkuntza@lumaltik.org helbidean edota gure sare sozialen bidez gurekin harremanetan jartzeko aukera dago.

Ongi etorri!

Zer da Enredada Feminista?

Proiektua pixkanaka ehundu zen Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza proiektuak egitean sortutako harremanen ondorioz. Euskal Herriko hainbat kolektibo militanteko kideek dinamizatutako jarduera bakoitzak, emakume migratuekin egindako batzar bakoitzak eta Erdialdeko Amerikako lagunekin egindako topaketa bakoitzak elkar ezagutzeko eta elkarrekin lan egiteko aukera eman digute, baita harremanak sakontzea, janaria partekatzea eta elkarrekin denbora ematea ere. Eta esperientzia formalak eta informalak sortzeko prozesu horretan egindako harremanak elkar laguntzeko, elkarrekin lan egiteko eta adiskidetasuneko harreman ere bilakatu ziren.

Jarduera horietan parte hartzen duten emakumeen hausnarketek eskaintzen dizkiguten ikaspen nagusien artean, konfiantzazko eremu gehiago sortu beharra dagoela eta elkarrekin lan egiten jarraitzeko gogoa aurkitzen ditugu. Ikaspen horiei esker, bada, konturatu ginen elkarri laguntzeko sortzen ari ziren eremu horiek mamitzeko unea zela eta, hala, Enredada Feminista sortu ginen.

Horrek emakume defendatzaileen babes prozesuak hartu nahi ditu, arreta Erdialdeko Amerikan eta Euskal Herrian jarriz. Bizitzaren eta lurraldearen defendatzaileek pairatzen dituzten indarkeriei aurre egitea da helburua eta, horretarako, proiektuak defendatzaileen eta euskal herritarren arteko aliantzak ezartzen, salatzen, hausnarketa sustatzen eta zaintza autodefentsa ekintzak burutzen ditu.

Gure lurralde, gorputz, eskubide sexual eta ugaltze-eskubide eta LGTBQ+ taldearen eskubideak direnez, “La enredada feminista” Defensoras sarea osatzeko konpromisoa hartu dugu hurrengo moduan:

- Gure borrokak eta salaketak gure lurralde eta sare eta komunikabide desberdinetatik partekatuz, komunikazio hegemonikoaren hesia hautsiz.
- Etorkizuna partekatzeko kontaktua eta konpromisoa mantenduz, elkarrekin guneak partekatzeko.
- Beste kide, eta aliatutako komunitateekin lurraldearen defentsaren inguruko beste prozesu batzuen informazio eta materiala partekatzea.
- Osasun pertsonal eta kolektiborako erreminta eta guneak partekatzea.
- Indarkerien aurrean elkar zaintzen eta aurre egiten.

Sare honekin Euskal Herri eta erdiamerikako organizazio/kolektiboak duten erlazioa finkatu nahi dugu, gure lana lurraldeen eta Giza Eskubideen defendatzaileen indarra, borroka eta erresistentzia erakusten jarrai dezan.

Erdialdeko Amerika eta Euskal Herria lotuz

Azaroan, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza taldeak Erdialdeko Amerikara bidaiatu zuen lurraren eta lurraldearen defendatzaileen, erresistentzian dauden komunitateen eta Giza Eskubideen alde borrokatzen diren gizarte erakundeen egoera ezagutzeko. Bidaiak Lumaltikeko lankidetza taldearekin batzeko eta partekatzeko aukera eman zuen, baita aliatu berriak ziren kolektiboekin ere. Era berean, nazioarteko beste topaketa batzuetan Euskal Herritik pasa diren eta urte hauetan adiskide izan ditugun lagunak berriz ikusi ahal izan genituen.

Buletin honetarako, Lumaltikeko taldeak hiru kronika prestatu ditu. Horietan, taldeko kideek lurralde bakoitzean egindako ikaspen nagusien inguruan hausnartuko dute.

Lurraren defentsa Chiapasen

Bidaia Mexikoko Hego-ekialdean hasten da, Chiapaseko estatuan. Bertan, Lumaltik Herriak erakundeak ibilbide luzea egin du mugimendu zapatistarekin. Zapatismoa erresistentzian dauden hainbat komunitate indigenak bultzatutako mugimendua da eta, neoliberalismoaren aurka borrokatuz, nazio-eredu berri bat sortzea du helburu, demokrazia, askatasuna eta justizia funtsezko printzipio gisa hartuko dituena.

Hala, San Cristobal de las Casas herria izan zen lehenengo geltokia. Bertan, zuzenean ezagutu genituen azken urteetan Lumaltiken lankide nagusietako bat izan den El Puente elkarteko kideak. El Puente hainbat ingeniariz osatutako erakundea da eta komunitate zapatistekin eta CNI indigenen batzorde nazionalarekin lan egiten du, batez ere, edateko ura arazteko proiektuen eta komunitateetan estufa efizienteak eraikitzeko proiektuen bitartez.

Erakundearen lana ezagutzearekin batera egin dugun ikaspen nagusien artean urak bere proiektuen ardatz nagusi gisa duen garrantzia dugu. Izan ere, ura zaintzako eta lurraldearen eta ingurumenaren defentsako iturri nagusietako bat da. Aldi berean, ikuspegi sozial batetik lan egin beharra ere ikasi genuen, baita teknikoagoak diren prozesuetan ere, proiektu horiek komunitateetan eta haien bizimoduetan zuzenean eragiten baitute.

El Puente elkarteak, gainera, zeharka txertatzen du genero ikuspegia eta hura funtsezko alderdia da proiektuak burutzean. Gaur egun, Chiapaseko Ipar Eremuko komunitate indigenetako emakumeak trebatzen ari dira beren estufa efizienteak egiteko gai izan daitezen.

Ez da soilik tresnak egingo dituzten emakume errementariak trebatzea, baizik eta komunitateetako genero-rolak eta lanaren banaketa sexuala haustea. Edateko ura arazteko sistemak sortzeko proiektuetan, emakumeek uraren kudeaketa eta administrazioa egiten dute patronatu karguaren bitartez; izan ere, postu horiek gizonek hartu ohi dituzte eta horrek emakumeek erabakietan parte hartzea mugatzen du. Aldi berean, maskulinitate berriei buruzko tailerrak egiten dituzte. Horietan, beste erakunde batzuetako zein El Puenteko gizonek maskulinitatea lantzen dute, arlo pertsonaletik eta antolakuntza eta lan arlotik.

Gainera, El Puenterekin lan egiten duen Acteal komunitatea ezagutzeko aukera izan genuen. Bertan, Abejas de Acteal (Actealeko Erleak) erakundea dugu. Komunitatea Chiapaseko Los Altos eskualdean kokatuta da, hain zuzen ere Chenalhó udalerrian. Hura, bada, Estatu osoan gatazka gehien duen zonaldeetariko bat da. Ondorioz, bertako biztanleek lekualdatze behartuak, mehatxuak eta indarkeria pairatzen dituzte paramilitarren, narkoen eta gobernuaren beraren eskutik. Horren aurrean, komunitatearen erantzuna lurra eta bizitza defendatzeko borroka baketsua da. Haien hitzetan:

> “Gure borrokak ehuntzea, modu baketsuan, armarik gabe. Ondo jokatzeko beste modu batzuk daudela frogatu behar dugu, indarkeriarik gabekoak.”

1997ko abenduaren 22az geroztik, Acteal komunitateak ez du inolako harremanik izan gobernuarekin. Izan ere, egun horretan, “Actealeko Sarraskia” izan zen. Talde paramilitar batek komunitateko 45 kide hil zituen, EZLNaren altxamenduaren ondoren erresistentziaren eta autogobernuaren bidea hartu zuten komunitate indigenak zigortzeko eta desantolatzeko gobernu-politikaren esparruan.

Dudarik gabe, topaketa horretan bizi genuen momenturik berezienetako bat Lumaltik Herriak, El Puente eta Actealeko emakumeok egindako batzarra izan zen. Horrek, genero-rolei, osasun fisiko eta emozionalari eta emakumeok eremu publiko eta politikoetan parte hartzearen garrantziari buruz hausnartzeko aukera eman zigun.

Kultura desberdintasunak eta gure artean dauden kilometroak gorabehera konturatu ginen emakumeen aurkako indarkeria jadanekoa dela eta zeharkatzen gaituela. Baita gure burua zaindu, gure minak eta pozak adierazi, elkarri lagundu eta gure artean sendatzeko eremuak sortu behar ditugula ere.

A25 Guatemalan

Gure bisitak azaroaren 25eko ospakizunarekin kointziditu zuen. Horretan eskualdeko aktibista eta defendatzaileekin elkartu ginen. Hala, ibilbide horretan emakumeen aurkako indarkeriaren larritasunaz eta emakumeek eta erakundeek hura ezabatzeko eta indarkeriarik gabeko bizitza baterako alternatibak sortzeko egiten duten lanaz jabetu ginen.

Data horren harira egindako ekintza nagusien artean indarkeria matxistaren biktimak aipatzeko eta aldarrikatzeko egiten den esna-aldian izan ginen. Azaroaren 24an, gauez, kandelak piztu ziren hildako emakume bakoitzagatik, lore-eskaintza egin zitzaien eta zeremonia txiki bat ospatu genuen. Halaber, farolak eraman genituen neskatxen enparantzara. Ibilbideak Guatemalako estatuak erre egindako 56 neskatxa oroitzen ditu. Horietatik 41 zendu ziren baina herrialdearen memoria kolektiboan jarraitzen dute. Guatemala Erdialdeko Amerikako herrialderik arriskutsuenetako bat da emakumeentzat. 2022ko urtarrilaren 1etik azaroaren 24ra bitartean 555 emakume hil zituzten, 17 milioi biztanle dituen herrialde batean.

Estatistikek egoera txarra adierazten badute ere, borroka feministak jarraitzen du, eta azken manifestazioetan gero eta emakume gazte gehiagok hartu dute parte. Azaroaren 21etik 25era bitartean EFLAC Latinoamerika eta Karibeko topaketa feminista ospatu zen. Horretan, 600 emakume anitzek baino gehiagok hausnarketetan parte hartu zuten: jatorrizko herrietakoak, mestizoak, afrikar jatorrikoak eta zuriak, landa zein hiri eremukoak. Hala, agenda feministaren interes nagusiak mahaigaineratu ahal izan zituzten. Topaketari amaiera emateko azaroaren 25eko martxa egin zuten. Horretan, Latinoamerikako eta Karibeko feministen aldarrikapenak kalean bistaratu zituzten, tokiko borrokak babestuz.

Lumaltik Herriak erakundeko hezkuntza taldeko kideok martxa horretan egoteko aukera izan genuen. Ostatura itzultzean, kazetari txalekoz

jantzitako zenbait emakumek ohartarazi ziguten: “kontuz, bakarrik bazoazte joan hobeto ondoko kaletik, seguruagoa da eta”. Izan ere, Guatemalan, emakumeek elkar zaintzen ikasi dute horrelako ekintza xumeen bitartez.

Euskal Herrian Erdialdeko Amerikako adiskideengandik sortutako ikasketa-prozesuan gaude: autozaintza eta zaintza partekatua. Peten eskualdeko “Ixquik” emakumeen elkartearekin elkartu ginenean emakumeen ongizate eta osasun fisiko eta emozionalaren beharraz aritu ginen. Indarkeria pairatu duten emakumeekin lan egiten duten erakunde hauek urteak daramatzate autozaintza tailerrak egiten bertara laguntza bila jotzen duten emakumeentzat eta bertako langileentzat ere. Izan ere, indarkeriari lotutako problematikekin lan egiteak, energetikoki zamatzen du, psikologikoki nekatzen du eta fisikoki gaixotzen du.

Autozaintza gure ongizate integralaren aldeko apustu feministaren da, gure burua beste izaki batzuen parte gisa aintzat hartzea proposatzen du eta gure probetxua aldarrikatzen du besteak zaintzeko, zaintza partekatua. Ixqik elkarteko adiskideekin autozaintza tailer batean parte hartu genuen, indarkeria pairatu duten emakumeekin egiten duten esku-hartzearen ondorioz sentitzen duten neke fisiko eta emozionala eta lanaldi luzeek eragindako estresa “arintzeko eta deskargatzeko” tresnak kolektiboki hausnartuz. Zentzu horretan, hona hemen tresna horietako batzuk:

- Autozaintza eta zaintza kolektiboa: egiten dituzten tailer desberdinen eta komunitate buruei zuzendutako sendakuntza tailerren bitartez.
- Egun zuzenduak: lanagatik estresatuta, nekatuta edo erreta dauden adiskideei ematen zaizkien atseden eta deskonexio aldiak dira.
- Koordinazioaren txandakatzea: erakundearen koordinazioa bi urterik behin aldatzen da. Hala, taldea koordinatzeak eskatzen duen erantzukizuna partekatzen da.

Bidaiak aurreko urteetan babestu ditugun salaketak egiten dituzten defendatzaile eta aktibistekin berriz elkartzeko aukera eman digu. Haiekin sareak ehuntzen jarraitzen dugu Enredada Feministaren bitartez. Horixe da LGTBIQ+ komunitatearekin eta komunitatearentzat lan egiten duen Otrans gizarte mugimendu autonomoaren kasua, hain zuzen. Kolektiboak A25eko ekintzak antolatzen dituen Guatemalako koordinakunde feministan parte hartzen du.

Azaroaren 24an, Otrans mugimenduak trans memoriaren "Sin memoria, no hay historia" (memoriarik gabe ez dago historiarik) hemeroteka aurkeztu zuen. Horrek Guatemalako hainbat emakume trabesti, transgenero eta transexualen bizi istorioak berreskuratzen ditu , herrialde horretan trans pertsonal daudela dokumentatuz. Azkenik, ibilbide horretan La Cuerda Feministaerakundearekin eta FGER irrati eskolen Guatemalako federakundearekin elkartu ginen. Horiekin sinergiak egiten jarraitzen dugu komunikazio komunitario eta alternatiboaren defentsan. Haien kontakizunen bitartez, gizarte bidegabekeriei aurre egiten eta horiek salatzen dituzte iritzi publikoaren aurrean eta tradiziozko hedabideek erabiltzen duten diskurtso zapaltzailea deseraikitzen dute.

Beraz, borroka feminista aktibo dago hedabide alternatiboetan. Bai La Cuerdak eta bai Jun Na'oj sareak (FGERko emakume gazteen kolektiboa) emakumeen aurkako indarkeria, arrazakeria eta Guatemalako emakumeek pairatzen dituzten giza eskubideen urraketak salatzen dituzte eta bizitze onaren alde egiten dute, horretan emakumeek indarkeriarik gabeko bizitza izatea barne hartzen dutelarik.

Cabañas (El Salvador) departamentuko erresistentzia

El Salvadorreko Cabañas departamentura egindako bisita ahaztezina izan zen. Bertan Radio Victoria eta Ades erakundeetako adiskideek hartu gintuzten.

Santa Marta komunitateko Marta eta Marixela adiskideek Radio Victoria irrati komunitario ikonikoaren egoitza nagusia bisitatzera eraman gintuzten. Irratiak, 1993an sortu zenetik, herri mugimenduak lagundu ditu haien erresistentzia prozesuetan. Irratiaren jatorria gogoratu genuen eta horretan parte hartu duen gazteen belaunaldi desberdinen argazkiak ikusi ere. Horman, oihal batek komunitatearen historia kontatzen du. Hura Hondurasera mugitu zen gerraren eraginez eta bere borondatez itzuli zen gatazka amaitu aurretik, erbestean 8 urte eman eta gero.

Hurrengo goizean, Adesen egoitzara itzultzean Antoniak eta “Chico” erakundearen zuzendariak harrera egin ziguten. Haiekin EL Salvadorren historian eta Cabañas eskualdearen erresistentzian sakondu genuen. Diktadura eta errepresio militarreko testuinguru hartan, Santa Marta komunitateak herri mobilizazioaren alde egin zuen tradizioz baztertua izan den jendearen premiei erantzuteko. 1993an, bake akordioak sinatu ostean, Ades prozesu horren jarraipen gisa sortzen da, Santa Marta komunitatea nukleo politiko sozial gisa duelarik.

1996tik aurrera Pacific Rim enpresaren aurka egindako borroka Adesen eta Radio Victoriaren une gogoangarri bat da. Horri esker, 2017an metalaren meatzaritza herrialdean debekatzeko le-

gea onartzea lortu zuten. Hala ere, Adesen argi dute enpresa horien interesak indarrean jarraitzen dutela. Hortaz, herri mugimenduen aurkako gobernu testuinguru horretan, komunitatean indartu beharra dago agresibitate neoliberalaren aurrean erresistentzia prozesuak mantentzeko.

Azkenik, Adesek gaur egun duen proiektu-amets bat partekatu ziguten: lursail agroekologikoa. Hura nekazariak trebatzeko eremu bat da, esperientziak partekatzeko eta jatorrizko herrien ondare zaharrak berreskuratzeko helburua duena. Hala, agroekologia eta elikadura burujabetza aldarrikatzen dituzte, nekazarien boterea berreskuratzeko eta iraultza herritarra egiteko proposamen politiko askatzaile gisa.

Bidaiaren nekea sentitzen genuen arren, indarberrituta esan genien agur El Salvadorreko adiskideei, Ades eta Radio Victoriaren borrokaren eta antolakuntzaren 30. urteurrena ikusteko gogoz.

Argazki-erreportajea
2022a elkarrekin gogoratuz

2022an Euskal Herrian egin ditugun jardueretan parte hartu eta partekatu duzuen adiskideei, kolektiboei eta parte-hartzaileei eskerrak eman nahi dizkizuegu. Hala, urtean zehar partekatu dugun guztia gogoratzeko, 2022a zein berezia izan den erakusten duen argazki-erreportaje labur hau eskaini nahi dizuegu.

Espero dugu 2023an Enredada Feminista elkarrekin ehuntzen jarraitzeko une, esperientzia eta topaketa gehiago izatea, eta hura gero eta eremu zabalagoa bilakatzea, elkarrekin beste mundu baten alde borrokatu eta saretu ahal izateko.

Topaketa Feminista Basoan, 2022ko urria

Donostiako Nazioarteko Jardunaldiak, 2022ko ekaina

Femgarabat-en tailerra Basoan, 2022ko ekaina

Munduko Arrozak, 2022ko ekaina

Nathalie Bejaranorekin tailerra Bilbon, 2022ko maiatza

Tailerra Jessica Marroquin eta Isabel Hernándezekin Azpeitian, 2022ko maiatzean

“Mujer Indígena”, Sara Curruchich

Yo, he nacido entre montañas
Entre tejidos de tierra, aire y agua
Y fuego, palabras sin miedo
Como aquel danzante en la esquina del universo
Soy un granito de maíz en el surco del tiempo
Sembrada en un vientre, en un vientre de barro
Con rocío y canto de Sol
Esto es lo que soy
Esto es lo que soy
Como mis abuelas con su alma guerrera
Como la tierra yo tengo piel morena
Soy mujer indígena, nieta de la Luna
Esta es mi fuerza
Ri nuk’aslem achiel k’a jun kem (nire bizitza sare baten modukoa da)
Chi jujun, chi jujun, nu tün ri’ ri xtäq b’ätz’ (banan banan hariak ehuna osatzen dute)
Keri’ k’a ri qab’ey, man ruyonilta petenëq (beraz, gure bideak dira, ez datoz bakarrik)
Ri ati’t säq kiwi’ säq kijolom ek’o pe (ile urdin eta pentsamendu jakintsuko amonek gidatzen eta laguntzen gaituzte)
Yin, in achiel jun juyu’ (mendi bat bezalakoa naiz)
Ri watit kitikonkan ri uchuq’ab’ pa nuk’u’x (gure amonek adorea eman zioten nire arimari)
Pa nuch’akul, pa nutz’umal, pa nutzub’äl, (nire gorputzari, nire azalari, nire begiradari)
Ruma’ ri manjun xtin xib’ijta wi’, manjun xkisilanta (horregatik, ez naiz beldur, ez naiz isilduko)
Po pa nuqul naläx chuqa ri que’aq’, (nire ahotsa, suaren jaiotza)
Pa nuch’akul k’o ri k’uxlabë’l, (nire barrenak memoria gordetzen du)
Jare’ ri nuxe’el (eta hau, nire jatorria da)
Traigo en mi camino, en mis entrañas
La historia de mi abuela, de madre y mis hermanas
Sin miedo ante el sistema resistiendo estamos
Nos reafirmamos
¡Aquí seguiremos levantándonos!
Con el latido fuerte
Con latido valiente
Con latido de fuego
Con digno latido rebelde
Esto es lo que soy

lumaltik
HERRIAK